Nere herriko eskolan

Nere eskolan ankre briolina
eta kreda xurien errautsa,
nere eskolan larrazkenetako
haize hegoak altxatu hautsa!
[...]
Nere eskolan liburu ederrak
larru gorriz urrez beztituak,
nere eskolan suontziak bero
hotzak ez direno eztituak!
[...]
Nere eskolan euskara zilegi
frantsesa ere behar ikasi,
nere eskolan negar eta irri
orain naizena egiten hasi!

Itxaro Borda (*Bizitza nola badoan*, 1979)

Hiztegia
ankre: tinta
briolina: ubela
larrazkenetako: udazkenetako
suontzi: berogailu
kreda: klera
hautsa: errautsa
zilegi: haizu, baimendu

Itxaro Borda

Itxaro Borda Baionan sortu zen 1959an. Oragarreko Oihenartea baserrian handitu zen. Ttipi-ttipitan hasi zen idazten, eta ainitz poema liburu, narrazio eta eleberri argitaratu ditu. Euskal kantari anitzen kantuen hitzen idazlea da ere. Maiatz aldizkariaren sortzaileetako bat izan zen. Gaur egun Baionan bizi da eta postaria da ofizioz. Natura goraipatzen du, sentimendu eta irudimen anitzeko lanak idazten ditu, paregabeko euskara eder eta aberatsean.

IRAKURKETA-AZTERKETA

1- Ohartzen naiz (ahoz).

a- Lexikoan diren hitzak idazlanean gainmarka itzazu.
b- Hitz horiek ulertu ondotik, testua osoki berriz irakur ezazu.
c- Zer idazlan mota da?

□ azalpen-testua? □ polizia-istorioa? □ ipuin miresgarria?
□ olerkia? □ kontakizun autobiografikoa?

d- Nor da idazlea?
e- Noiz idatzi zuen?
f - Zer da izenburua?
g - Zenbat estrofa dira hemen?
h- Nola hasten dira estrofak beti?
i- Zenbat silaba dira bi neurtitz hauetan?

Nere eskolan ankre briolina:.....
eta kreda xurien errautsa:....

j- Zein lerrotan dira errimak? (azken silaba berdintsua dutenak)
k- Zer dira errima horiek?

2- Olerkia ulertzen dut.

a- Zertaz mintzo da olerkaria?
b- Zertaz mintzo da, bereziki lehen estrofan, bigarren estrofan eta hirugarrenean?
c- Zer irudi ematen du bere eskolaz?
d- Zer sentimendu adierazten du olerkariak?
e- Lehengo eta oraingo eskolak (edo ikastolak) konpara itzazu.

Erranaldi zuzenak kopia itzazu:
-Gaur egun ere, idazluma tintontzian trenpatzen da.
-Lehen, mahai bakoitzak tinta edo ankrea emateko tintontzi ttipia zeukan.
-Lehen, arbelean klera zuriz idazten zen.
-Lehen, berogailuak egurrez betetzen ziren eta sua pizten zen ikasgelaren berotzeko.
-Gaur egun, ikastolan euskaraz mintzatzea debekatua da.
-Lehen arbel numerikoa eta ordenagailua erabiltzen ziren ikasteko.

3- Eztabaida batean parte hartzen dut.

"Ene eskolan euskara zilegi".

Beti hola izan dea gure eskoletan?
Zer dakizu hortaz? Zure aitatxi-amatxiek zerbait kontatu ote dizute lehengo eskolaz?

***(Hitz-kutxako** hitzak erabil itzazu zure argumentuen adierazteko).*

4- Idaztea

**** Zure izenarekin eta zure adiskideen izenekin errimatzen duten hitzak xerka itzazu eta idatz.**

"Maialen, beti lehen!"
"Aitor, beti hor!"
...
edo

**** Beste estrofa bat gehi iezaiozu olerkiari.**

Nire eskolan,....
Ene ikastolan...

edo

***Bertso hauek osa itzazu errima egokiak hautatuz.**

Ni Baionakoa naiz	Bederatzi urteko
Izena dut Ibai,	Laudioko Naia,
Gustuko dut pilota	Afrikara egingo
Futbola ere.....	nuke gaur.....

***** *Nere herriko eskolan* olerkia **kopia ezazu** (olerki kaierean) ahal bezain idazkera politenaz, maiuskula ederrak emanez. Ondotik, **ilustrazioa** egin ezazu.

5- Erraten dut.

Olerkia ozenki irakur ezazu lehen estrofako a*n**kre bri**olina*; ***kre**da*; ***erraut**sa*; ***larraz**kenetako* hitzak garbiki ahoskatuz.
Olerkia gogoz ikas ezazu eta behar den erritmoa eta doinua emanez **errezita**



Cartepostaleancienne www.delcampe.net